



## Eskolako Agenda 21

### Juan Orobiogoitia BHI

Ekintzen balorazioa:

**Ebaluazioa. Ekintzen garapena, balorazioa eta helburuen lorpen maila**

Fasea: Ebaluazioa

Data: 2017-06-15

Arduraduna: Ingurumen Batzordea

	Hobekuntza-helburuak	Ekintzak	Garapena eta balorazioa
<b>CURRICULUM</b>	Gaiarekin loturiko materiala mintegiei luzatu	Materialak bilatzea eta jarduerak eskaini mintegietan.	Material ezberdinak eskaini zaizkie irakasleei mintegi eta maila ezberdinetan lantzeko. Batzuk landu dira eta besteak hurrengo urtean erabiltzeko utzi dira.
		Ortua	Ortua landu da, sasoi bakoitzean lan ezberdinak eginez. Kurtso hasieran iaz jarritako uzta ezberdinak jaso ditugu eta eurekin baserrietako lan ezberdinak burutu: piperrak kordatu, haziak atera... Sasoi bakoitzeko ortuari batzuk jarri ditugu eurekin lan ezberdinak eginez: erein, landatu, ureztatu, batu, jorratu... Bildutakoa txandaka eraman dute etxera. Ekintza hau Eako tailerreko ikasleekin burutu da. Hazitako landare batzuk galdu zaizkigu eta ortuan ez ditugu landatu.
		Konposta	Zailtasunez konposta egiten jarraitu dugu. Ardura gehiagoz hartu behar da.
		Ibaialde	Programa honetan parte hartu dugu 4. mailako ikasleekin.
		Irteerak ingurune naturaletara	Irteerak egin ditugu maila guztietako ikasleekin ingurune natural ezberdinetako programak garatuz: Sukarrietako egonaldia, Peñas Negras, Urkiola, Zumaia flysha, Gorbeia.

**KUDEAKETA**

Hondakinen sailkapena hobetu ikastetxean.

Ontzi horien berrantolaketa.

Hitz egin dugu garbitzaile ezberdinekin eta zaborra bereizten dutela esan digute. Ikasleek hala moduz egiten dute, baina egiten dute.

Eskolako Agenda 21eko konpromisoak zabaldu

Konpromisoen orria landu eta falta zen lekua berriztu.

Tutoretzetan ikasle ordezkariak materialen kontsumoaren murrizketa, berrerabilpena eta birziklapenari buruzko aholkuak zabaldu dituzte, ikasleen konpromisoekin batera.

Ikastetxeko Energi egoera aztertu

EA21 Tailerreko ikasleek ikastetxearen auditoria energetikoa egin dute

Puntu onak eta ahuleziak aurkitu dira, eta Zuzendaritza taldera luzatu dira emaitzak, neurriak har ditzaten.

<b>PARTAIDETZA</b>	Gurasoekin harremanetarako Einikaren erabilera indartu	Einikaren azterketa	Informazio batzuk einikaren bitartez zabaldu dira.
	Guztion partaidetza handitzea	EA21 tailerra eguerdian sortzea	Arrakasta handia izan du eta 25 ikasle hasi baziren 20 ikasle kurtso osoan zehar eguerdi baten EA21eko gauzak egiten ibili dira.
	Irakasle eta langile ez irakasleen partaidetza sustatzeko	Bertako ogia	Ogia jasotzen dutenen kopurua mantendu da.
	Ikasleen partaidetza bultzatzeko	Otxandioko "Hontza extrem" ekintza	Ekoordezkariak eta kurtsoan laguntza eman digutenak joan gara.
<b>UDALA</b>	Udal arekin harremana bultzatzeko	Eskolen arteko foroa Udal foroa	Eskolen arteko foroa eta udal foroa burutu dituzte EA21eko ordezkariak. Foro horretan kurtsoan zehar landutako gaiak eta proposamenak plazaratu dira.

## Helburuen lorpen maila:

	Hobekuntza-helburuak	Adierazleak	Ebaluazioa (adierazleen emaitzak)
<b>CURRICULUM</b>	Gaiarekin loturiko materiala mintegiei luzatu	Eskainitako materialak	Zenbat mintegitan jorratu izan dira Klima aldaketaren gaia. Gizarte, Natura, Euskara, Ingelesa, Teknologia eta Gorputz Hezkuntzan landu izan dira.
<b>KUDEAKETA</b>	Materialen berrerabilpena bultzatu  Hondakinen sailkapena hobetu ikastetxean	Argazkien behaketa	Berrerabilpen aholkuak luzatu zaizkie.  Aldiro atera diren argazkiak eta baita ere ontziak behatu ondoren, ez da sailkapenean hobekuntzarik nabaritu.
<b>PARTAIDETZA</b>	Gurasoekin harremanetarako Einikaren erabilera indartu  Ikasleen konpromisoak areagotu	Einikaren bidez bidalitako mezu kopurua  Partaidetzaren akta	Baliabide honen erabilgarritasuna aztertzen aritu gara, baina drive-a sistema egokia dela ikusi dugu eta lehenetsi dugu.  Oso ona. Datorren urtean honela edo 2. DBh-ko Ingurumen tailerraren bitartez jarraipena ematea nahi dugu.